

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

#### DEMOGRAFIA ERRONKAREN ZUZENDARITZA

#### **Labraza, Gorrebusto eta Elgeako administrazio batzarren instalazioetan belaunaldi berriko banda zabaleko komunikazio zerbitzua kontratatu aurreko kontsulta**

Gaur egun, Labraza, Gorrebusto eta Elgeako administrazio batzarrek telekomunikazioetako zerbitzuak behar dituzte, erakunde horien administrazio izapideak bitarteko elektronikoen bidez behar bezala egin ahal izateko, bai udal administrazioarekin, baita Arabako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin ere, hala xedatzen baitu sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko araudia onetsi zuen martxoaren 3ko 203/2021 Errege Dekretuak.

Errege Dekretu horrek urriaren 1eko 39/2015 Legean eta urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako bitarteko elektronikoen erabilera garatzen eta zehazten du, bermatzeko, alde batetik, administrazioak elektronikoki izapidetzen dituela administrazio prozedurak, eta, bestetik, herritarrek bitarteko horien bidez jartzen direla harremanetan administrazioarekin, nahitaez hala egin behar dutela ezartzen den kasuetan edo herritarrek borondatez hala erabakitzen dutenean.

Telekomunikazio zerbitzua Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorren 6. artikulua arabera gaitutako operadore batek eman behar du.

Gaur egun, Arabako Lurralde Historikoko Oiongo eta Elgeako udalerrietako Labraza eta Gorrebusto herriguneetan ez dago gutxienez 100 Mbps-ko abiadura emateko gai den belaunaldi berriko banda zabaleko sarerik. Era berean, ez dirudi operadore batek ere urtebete baino gutxiagoko epean estaldura emateko asmorik duenik, ezta gaur egun sustapen publikoko plan batean sartuta daudenik ere.

Administrazio batzarren eta gainerako administrazio publikoen arteko harremanak ahalbidetzeko Internetera sartzeko gaitasun handiko konexio zerbitzu bat kontratatu aurretik, azaldu-takoa hala dela berretsi nahi dugu, eta erabaki dugu gaitutako operadorei honako puntu hauei buruzko alde aurreko kontsulta egitea:

- Ea badagoen gaur egun belaunaldi berriko banda zabaleko sareen estaldura eskaintzeko gai den operadorerik, gutxienez 100 Mbps-ko abiadurarekin, bai beherantz, bai gorantz, Labraza, Gorrebusto eta Elgea herriguneetan.
- Ea operadoreren batek asmorik duen estaldura hori urtebeteko epean eskaintzeko herrigune horietakoren batean.
- Ea operadoreren batek sustapen publikoko planen batean parte hartzeko asmorik duen, herrigune horietakoren bati oso abiadura handiko banda zabaleko sarearen estaldura emateko.

Erantzunak Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko Demografia Erronkaren Zuzendaritzara bidali behar dira, hilabeteko epean, kontsulta hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Jakinarazpen horiek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa: <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 6a

*Demografia Erronkaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**